20 11

PASAIAKO ZENTRAL TERMIKOA


1950eko hamarkadaren amaieran, enpresak eta etxeak gero eta energia elektriko gehiago eskatzen hasi ziren, horrenbestez, energia hidraulikoak, lehendabizi, eta termikoak, ondoren, erronka honi aurre egin behar izan zioten, energia nuklearraren zain zeuden bitartean. Iberduero enpresa garai horretan Euskal Herria elektrizitatea merkaturatzen zuen enpresa bakarra zen eta 1957. urtean, energia termikoaren bere planari ekin egin zion, Burceñako zentrala eraikiz (66 Mw). Bi urte ondoren Velilla del río Carriónekoa (142 Mw) inauguratu zen.

Ondoren, Pasai Donibaneko zentral termikoa eraiki zen (hura izan zen bere izen ofiziala), Lezoko moiletan. Horrek itsas jabari publikoko 34.000 m2 okupatzen zituen, Pasaiako Portu Agintaritzak lagata.

Zentralak ikatza erretzen zuen erregai nagusi gisa eta fuel edo gasolio, berriz, bigarren mailako erregai bezala. Hura bere instalazioetan atrakatzen zuten itsasontzietatik jasotzen zuen.



Zentral termikoa 2010. urtean, oraindik aktibo eta ikatz tanga beteta. Bere tximiniak 115 metroko altuera zuen.




Zentral termikoaren turboalternadorea instalatu zen 240.000 kW potentzia nominalarekin.

Zentralak talde bakarra zeukan, instalatutako 215 Mw potentziarekin. 1967an jarduten hasi zen eta 2012. urtean, berriz, lan egiteari utzi zion. 2015ean, guztiz desmuntatu zuten, okupatzen zuen azalera libre utzita.

Zentrala itxi zen, oro har, zaharkituta geratu zelako eta baita erabiltzen zuen erregai motarengatik. Azken hura zela eta, azken urteotan, talde ekologistek zenbait aldarrikapen egin zuten, negutegi efektuko gasak sortzen zituela eta ikatza estalperik gabe biltzea gogaikarria zela adieraziz.

Bere instalazioen artean 115 metro altuerako tximinia bat nabarmendu zen.



Ortoargazkia 1954. Amerikar hegaldia, B segida. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco, geoEuskadi. Geografia Erakunde Nazionala.

Portuak ez du baldintzatu zentrala eraikiko den gunea, ezta Lezoko moilek ere. Atzeman daitezke lokatz eta hondar pilaketa handiak, dragatze prozesuan. Gorriz adierazi da zentrala eta bere ikatz tanga eraikiko diren lekua.



Hiri ortoargazkia 2007-2009. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi.
UTM 30N ETRS89 // X: 588431 m // Y: 4797327 m // Z: 3 m.

Zentrala jardunean. Goiko aldean zelaiak estalitako likidoen tanga handietako airezta-penak. Argazkiaren eskuinaldean balbulen eta tutuerien sistema ikus daiteke, likidoak tangetara igarotzeko. Horrez gain, ikusten da ere ikatza estalkirik gabeko tangatik zen-tralaren barnera eramateko sistema mekanikoa.



Ortoargazkia 2014. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi.

Zentral termikoa eraispen prozesuan bertan. Ikatz tanga, dagoeneko, hutsik dago. 115 m altuerako dorre handiak bertan irauten du bakarrik. Hura 2015ean erautsi zen. Zentrala guztiz desmuntatu ondoren 2015. urtean, Pasaiako Portu Agintaritzak lurraldeak berres-kuratu zituen eta horiek porturako erabili dira berriz.